

LAUDIO UDALA

NORTASUN EREMUA- Azpi-arloa Jaiak

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025ko maiatzaren 23 eguneko erabakiaren bidez hartutako ebazpenaren laburpena. Erabaki horren bidez, 2025. urtean jaietako programak egiteko lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia onartu da.

DLDBN (identifikatzailea):

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>): eta Laudio Udal honen web atarian (www.laudio.eus)

Lehenengoa.- Onuradunak.

Deialdi honen bidez, subjektu indibidualek edo elkarteek sustatutako jaietako-programak arautzen dira, baldin eta 2025ean gure udalerrian jaietako programak sustatzen badituzte.

Bigarrena.- Xedea.

Gure udalerrian 2025ean jaietako programak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena.- Oinarri arautzailea.

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko maiatzaren 23an hartutako erabakiaren bidez onartua.

Laugarrena.- Zenbatekoa.

Deialdi honetarako zuzkidura 42.000,00 eurokoa izango da.

Gastua egotziko zaie Laudio Udaleko 2025eko aurrekontuko udal-aurrekontuko “Sanroketarako dirulaguntzak / Subvenciones fiestas San Roque” aplikazioan (0403 3381 48119).

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.

Eskabideak hogeitun egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskaera egiteko eskabide normalizatuan, egoitza elektronikoaren bidez, pertsona juridikoen kasuan, eta egoitza elektronikoaren bidez edo Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bidez, pertsona fisikoen kasuan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako moduetan.

Laudio, 2025eko maiatzaren 23a

Alkate-udalburua, AINIZE GASTAKA MARTINEZ